

URTEKO KRONIKA IRUDIETAN

MURGIA parkean zehar ibilbide gidatuak

Herritarrei bertako historia eta landareak ezagutarazteko helburuarekin egiten dira bisita hauek. Ezinbestekoa ikusten da ezagutza hau herrian zabaltzea, herrian dugun baliabide nagusi hau baloratzeko eta, ondorioz, baita errespetatzeko ere.




TXOXBERRI FESTA

Aurten eta aurreneko aldiz, sagardogile, tabernari, herriko talde eta herritar askoren laguntzaz, sagardo txotx boladari hasiera emateko festa antolatu da. Honen ondorioz ere, herri mailan Sagardo Kontseilu osatzeko hasierako urratsak ere emanak daude.

Eutsi horri!!!

ISIDRO DEUNA FESTA GIROAN

Aurtengo Isidro egunaren inguruan Herri Kirol Batzordeak, antolatu ohi dituen aktibitateen bitartez, baserritarren beharrak sustatu eta plazaratzeko ahalegin aberats batean murgildu gara.



Tamalez urte honetan ere Espainiar zein Frantziar espetxeetan presoek pairatzen duten giza eskubide ezaren ondorioz Astigarragako kaleetan zehar ere beraien defentsan irten beharrean aurkitu gara. Astigarragatar ugarik parte hartuz.

DISPERTSIORIK EZ !!

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!!!